

B11

Çuc onenen contra gura badoçu...

Poema hau testu nagusiaren eskuinean idatzita dago. Bertso-lerroak idatzi zirenean, ez zen ahapaldi-banaketarik egin, eta gero erantsiak dira 11, 12, 13, 14 zenbakiak, bertso-lerroak launakako ahalpaldietan biltzen dituztenak; hortaz, egokiago iruditu zaigu poema distiko-segida gisa aurkeztea: bertso-lerro dekasilabiko bakoitiak libre, eta bikoiti oktosilabikoak -u errima bokalikoarekin (kontuan izan antzera gertatu dela A16, B5 eta B12 poemetan ere). Ahapaldi-zenbaki horiei esker dakigu orain ezagutzen dugun testuaren aurretik 40 bertso-lerro galdu zirela, ziur aski, 1178 orri galduaren aurkian (hots, 10 x 4, hau da, hamar ahapaldi-zenbaki bider lau bertso-lerro).

Poemaren bi heren galdu direnez, ez da erraza galduriko zatian bide zegoena asmatzea, baina, ezagutzen dugun zatiaren arabera, esango genuke Erdi Aroko literaturan (batik bat Frantziakoan eta Provenzakoan) hain ezagunak diren amodio-epaitegi eta amodio-auziez ari dela; gaztelaniaz *tribunal de amor* eta frantsesez *cour d'amour* edo *arrêt d'amour* esan ohi zen, eta bada gaztelaniazko 1537ko nobela bat ere, Luis Escrivárena, *Veneris tribunal* izenekoa. Alegoria gisa aurkezten da, hortaz, auzitegietao hiztegiarekin (*parte, probadu, justizia...*), maitasun-justizia: ez da zuzena zuk ni ez maitatzea, eta amodioaren justiziak erabakiko du, maitale naizelako, garaile izan behar dudala, *omnia vincit amor* topikoaren arabera.

<1179r> [...]
 Çuc onenen contra gura badoçu
 rebelde ičan, jaquiçu:
 ene parteti¹ içango çara
 justiciara citadu.²

¹ *ene parteti*: Hemen *parte* auzitegietao hiztegi hitza da; *OEHN* ere bilduta dago erabilera hori ('parte en un proceso'), Etxepare, Otxoa Arin eta Frai Bartolomeren lekukotasunekin.

Agentea gehienetan instrumentalean izaten da, bai Lazarragaren testuan, baita garai hartako gainerateko testuetan ere: *denpora baten ičan ninčan / amoreminez tentadua* (A21: 1-2); *Iustificatu ičan da sapientiá bere haourrés* (Leiz Mat. XI, 19) 'la sapience a été justifiée par ses enfants'; noiztenka ablatiboan ere agertzen zaigu Lazarraga eta Leizarragaren testuetan: *neure aragui gaxtooganic / ičan ninčan ni tentadua* (A21: 28-29), *niganic ancietea* (A24: 134); *Çuhurretariç diligentqui informatu ičan cen demboraren araura* (Leiz Mat. II, 16). Baina, kasu honetan, kasu-marka prosekutiboa da, ziur aski gaztelaniazko *por mi parte* esamoldearen kalko gisa; eskuizkribuan bada halako besteren bat ere: *guc eta çuec bearco dogu jente cruel oen escuetati eriocea gustadu* (AL: 1154v).

Nic çu andiro laztan içana ³	5
an içango da probadu; ⁴	
çuc bere niri derextaçula ⁵	
an escatuco nachaçü. ⁶	
Amoradua amorez ilten ⁷	
ecin leite ⁸ sufridu;	10
edo berandu edo goxago	
çuc bear nauçu curadu.	
Carro trunfala, ⁹ ene perlea,	

² *içango çara / justiciara citadu*: XVI. mendean, gisa honetako egitura pasibo birkonposatuak Betolatza eta Lazarragaren testuetan baizik ez dira lekukotzen: *denpora baten içan ninçan / amoreminez tentadua* (A21: 1-2); *Laztanagana oy içan ninçan us eguin бага guiadua* (A21: 20-21); *neure aragui gaxtoaganic / içan ninçan ni tentadua* (A21: 28-29); *Sinistetan dot [...] gueure launagâ, zeyna izan çan concebidua Espiritu Santuen obraz* (Bet 93). Izan ere, garai hartako ekialdeko testuetan egiturako aditz nagusiak (hots, partizipioak) ez du sekulan artikulurik eramaten: *Orduan compli cedin Hieremias prophetáz erran içan cena* (Leiz Mat. XXVII, 9); *(co)nçebitu yçan baiçen Spiritu Sandu aren /...* (Credo zaharra, Satrustegi 1990). Lazarragaren testuan, artikulurik gabeko aldaera geroaldiko pasiboan baizik ez da lekukotzen: *ene parteti içango çara / justiciara citadu* (B11: 3-4), *Nic çu andiro laztan içana / an içango da probadu* (B11: 5-6).

³ *Nic çu andiro laztan içana*: Lerroarteko aldaketak egin baino lehen, hau izan bide zen lerroa: *Nic çuri laztan derechudana*.

laztan içana: ‘maite izana’; cf. *OEH*, s.v. *laztan*: “LAZTAN IZAN (trans.) (V-ger-arr-oro, G ap. A; Añ, Izt). Amar, querer”.

⁴ *içango da probadu*: Egitura pasiboaz, ikusi B11: 3-4 bertso-lerroetako oharra.

⁵ *derextaçula*: ‘maite nazazula’; *erexi* aditzaren subjuntibo trinkoa. Ohar bedi hemen *on* falta dela, baina, hala ere, ‘maite izan’ adiera duela.

⁶ *escatuco nachaçü*: ‘eskatuko dizut’; eskuizkribuan *eskatu* aditzak NOR edo NOR-NORI erregimena du, beste euskal testu zaharretan bezala (*RS*, Leiz, Zalg).

⁷ *ilten*: Eskuizkribuan askotan dago aditz-izena inesiboan (-*tzen*), gaur absolutiboa erabiliko genukeen lekuan (-*tzea*).

⁸ *ecin leite*: ‘ezin liteke’; *leite* laguntzailea **edin* aditzeko potentziala da, oraindik -*ke* atzizkirik gabe. Testu arkaikoenetan, **edin* eta *izan*-en adizki monopertsonalek -*te* atzizkia hartzen dute, gainerateko aditz iragankor eta iragangaitzei -*ke* atzizkia eransten zaielarik. Azken hau, XVII. mendetik aitzina baizik ez zen -*te* morfemaren erabilera esparrura hedatzen hasi, hura osoki ordezkatzuz (*litzake*), edo hari pleonasmikoki gehituz (*litzateke*).

⁹ *Carro trunfala*: Garaipen-gurdia, berez, garaipen militarrekin lotua den arren, sarri erabili da amodio-garaipenari lotuta ere, eta bereziki Kupidorekin lotuta. Bereziki interesgarria iruditu zaigu *Por los campos Elíseos* erromantzea (*Cancionero llamado Flor de Enamorados*, 1562); erromantze horretan, Cupidoren garaipen-gurdian hiru dama doaz preso, maitaleekin gaiztoak izan direlako zigorturik: “[...] En esto vide a Cupido / que en carro triunfal venía; / [...] tres damas / llevaba de gran valía, / presas encima del carro / llorando con agonía / [...] La una es porque burlaba / de quien con fe le servía; / la segunda, porque a muchos / de amor cara les hacía; / la postrera, que a su amante / la promesa no cumplía”.

nic bearco dot gozadu,

Macias glorioso¹⁰ leguez

15

ezpanaguie bencidu.¹¹

trunfala: *CORDE* datu-basean erruz lekukotzen dira, XVI-XVII. mendeetan, gaztelaniaz, *trunf-* erroko formak (36 aldiz, hain zuzen). Euskaraz, Lazarraga Elkanokoarenean aurkitu dugu *trunfatzen* forma (*Zenbait sanduen biziak*, Aprilaren 29an, *apud* [Klasikoen Gordailua](#)).

¹⁰ *Macias glorioso*: Macías trobadore galegoaz ari da, amodioaren irudi bezala aipatzen baita XV. mendetik. Lazarragak ezagutzen zuen Juan de Menaren *Laberinto de fortuna* liburuan ere agertzen da, besteak beste, maitasunagatik heriotza aurkitu zuen gizona: “CV. Tanto anduvimos el cerco mirando, / que nos fallamos con nuestro Macías, / e vimos que estava llorando los días / con que su vida tomó fin amando”. Esanguratsua da, denan den, *glorioso* epitetoarekin behin aurkitu dugula, Bartolomé de Tomás Naharoren *Comedia aquilana* antzezlanean (Jornada I, 258-260): “y que muero más ufano / que el glorioso Macías, / por amores”.

¹¹ *Carro trunfala, ene perlea, / [...] / ezpanaguie bencidu*: Aldaketen aurretik, ondoko hau bide zen testua:

*Conquistaxeau, ene perlea,
nic bearco dot bencidu,
edo bestela onen gañean
Macias leguez finadu.*

conquistaxeau: ‘konkistatxo hau’; Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: **1)** Txikigarria (*-xe = -txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexac* (A14: 69), *çuzpirioxe* (A14: 73), *esecoxeoc* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxeau* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59), *conquistaxeau* (B11: 13 oh. pal.) eta beharbada *Peru Errochec* (A27: 31; ik. lerro horretako oharra). **2)** Izenondo eta aditzondoaren intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). **3)** Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean*-ekin): *bercheac* (A7: 77, A29: 62), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

bencidu: *vencer* (*una/la*) *conquista* kolokazio arruntegia ez bada ere, *CORDE*n aurkitu ditugu zenbait adibide: *pues que los pajes de nuestra hueste tomaran la empresa desta nuestra vencida conquista* (Juan de Flores, 1470-1492, *Triunfo de amor*. BNM Ms. 22019), *si dura obstinación venció conquista* (Gutierre de Cetina, c. 1536-1557, *Poesía*), *El muy perfecto Baptista / precursor sanctificado / por más vencer la conquista / al yermo fue segregado* (Francisco de Ávila, 1508, *La vida y la muerte o Vergel de discretos*). Uste dugu *bencidu* aditza, gaztelaniazko *vencer* bezala, ‘lortu’ adieran ulertu behar dela; cf. *DAut*, s.v. *vencer*: “Significa también salir con el intento u efecto en contienda física o moral, disputa o pleito. Lat. *vincere, obtinere*”.

onen gañean: ‘honi dagokionez’.

finadu: ‘hil’; *OEH*n *finatu* forma bildu da, lapurterazko lekukotasunekin, baina ziur aski Lazarragaren *finadu* forma gaztelaniazko *finar* aditzarekin lotu behar da.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Poema hau testu nagusiaren eskuinean idatzita dago, orriaren goialdetik hasita. Bertso-lerroak launaka bereizi dira, eta laukote bakoitzak zenbaki bat du ezker-aldean: *11* (B11: 1-4 bertso-lerroak), *12* (B11: 5-8 bertso-lerroak), *13* (B11: 9-12 bertso-lerroak) eta *14* (B11: 13-16 bertso-lerroak). **3** ene parteti] lerroartean idatzita; lerroan *justiçiarra*, marra batez tatxatuta. **5** çu] esk. *çuri*, amaierako *ri* marra batez tatxatuta. || andiro] lerroartean idatzita. || içana] lerroartean idatzita; lerroan *derechudana*, marra batez tatxatuta. **6** içango] hitz-hasierako *y*- beste zerbaiten gainean idatzita dago (agian *j*). **13** Carro trunfala] lerroartean idatzita; lerroan *conquistaxeau*, marra batez tatxatuta. **14** nic bearco dot] azpian, lerro tatxatu batean, *carro trunfala*. || gozadu] lerroaren eskuinean idatzita; aurrean *bençidu*, marra batez tatxatuta. **15** Macias glorioso leguez] lerroartean idatzita; lerroan *edo bestela onen ganean*, marra batez tatxatuta. Eskuizkribuan *ganean* dakar, baina *gañean* eman dugu gure testuan. **16** ezpanaguie bencidu] lerroartean idatzita; lerroan *maçias leguez finadu*, tatxatuta.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B11 – Çuc onenen contra gura badoçu...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago